



Miriam eta Igone Saldias Tolosako Soronea dendan. ENERITZ MAIZ

«Familia osoa oso harro gaude daukagunarekin»

MIRIAM ETA IGONE SALDIAS BASERRITARRAK

Berrobiko Soronea baserriko baratze ekologikoari eutsi nahi diote, Tolosako dendarekin batera, osabak hasitako bideari jarraipena emanez; «opari bat» dutela diote bi ahizpek // 4-5

Bilboko manifestaziora joateko autobusak jarri dituzte

Sarek eta Bakegileek antolatuta, Bilbon eta Baionan izango dira manifestazioak larunbat honetan // 3

Alegiako kiroldegiko bazkide izateko aukera zabalik dago

Bazkide egin edo jarraitzeko modua dago urtarrilean; mendi taldeak urteroko egutegia salgai jarri du // 6

«Azken urteotako lanak bere fruituak eman ditu»

ERIK JAKA PILOTARIA

Pozik dago lizartzarra Binakakoan parte hartzeko aukeratua izan delako, eta lehen postuan dagoelako // 7

OSTEGUNA

2020/01/09
8. urtea, 1.167. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

LIZARDI

inmobiliaria

www.inmolizardi.com
San Frantzisko ibilbidea, 41 A behea
Tolosa 943 65 11 22



110.000€

TOLOSA - Larramendi / VPO: Sukalde, egongela terrazarekin, logela eta bainugela. Garajea eta trastelekua.



99.500€

TOLOSA - Rondilla / Tasatua: Sukaldea-egongela, logela eta bainugela.



230.260€

IBARRA - Arantzazuko Ama / Estrenatzeko pisua: 3logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela.



Alberto Luengo biologoa eta Patxi Amantegi Tolosako Udaleko ingurumen zinegotzia. TOLOSAKU UDALA

'Tolosako fauna: landa behaketa' liburua argitaratu dute Tolosako Udalak eta Alberto Luengo biologoak; herritarrek uste baino espezie gehiago bizi dira inguruan.

Mosaiko handi baten bilduma

Itzea Urkizu Arsuaga

Duela ia urtebete aurkeztutako Tolosako Landa Koaderno osatzera heldu da *Tolosako fauna: landa behaketa* liburua. Tolosako Udalak sustatu eta Alberto Luengo biologoak mamitutako lana da, eta hiru zati nagusi eskaini dizkio: irakurleari: Tolosan bizi diren espezieak bildu dituzte, batetik; berriki inguruan azaltzen hasi diren espezieen berri ere eman dute; azkenik, egutegi natural bat osatu du Luengok.

«Uste duguna baino askoz ere espezie gehiago daude Tolosan, imajina dezakeguna baino ugaztun, hegazti nahiz intsektu gehiago». Hala nabarmendu du biologoak eta, bide horretan, zenbaki zehatzak eskaintzeko ikerketa sakonago bat egin beharko litzatekeela uste duen arren, Tolosako ekosistema mosaiko handi bat dela uste du: «Gipuzkoa oso txikia eta oso populatua da eta, gipuzkoarrok naturarekin lotura handia dugun arren, industriaren historiak ere garrantzi handia izan du».

Horrek lurraldearen eraldatzearen eragin zuzena izan duela dio,

«baina, hala ere, asmatu dugu irla moduko eremuak mantentzen, eta horrek giro desberdinen mosaiko bat sortu du. Gipuzkoan bezala Tolosaldean ere, denetik daukagu pixka bat, eta horrek fauna behatzeko aukera handia eskaintzen digu, lurralde oso txikian».

Zerbait behatzeko, ordea, jakin egin behar da hor dagoela; edo ez. Izan ere, Alberto Luengo biologoak zehaztu du bi behatze modu baliatu ohi dituztela biologoek, beren jardunerako: behatze pasiboa eta berariazkoa, bilatutako behatzea. Argitaratu berri duten liburuko espezie asko modu pasiboan bildu dituela aitortu du, «mendian, ibaian edo Tolosan barrera» zihola. Ez baita erraza gizakien bizi erritmoa faunarenarekin uztartzea: «Jendeak ez ditu inguruko espezie asko ezagutzen eta, gainera, normalean, fauna egunsentiko edo ilunabarreko or-

duetan aktibatzen da; gizakion bizi erritmoa ahalik eta gehien saihesten saiatzen dira».

Dena den, zoologoek badute haiengana iristeko sen berezi bat, eta beste askok ikusi edo entzuten ez dutena atzemateko gai direla dio. Animalia jakin batzuk ikusi nahi izan dituenarako, berriz, oso zehatz ezagutzen du haien bizi-modua: «Adibidez, ugatza ikustera joan nahi baldin badut, oso zaila da leku zehatz batera ez joatea, bai baitakit, gutxi-gorabehera, zein ingurutan dabilen. Gero, beste kontu bat da ikustea edo ez ikustea, noski».

EKOSISTEMA ALDATZEN

Lauzpabost urteko lana bildu du Luengok, *Tolosako fauna: landa behaketa* liburuko 108 orrialdeetan eta, epealdi horretan guztian behatutako espezieen artean, badira Tolosa inguruetan azaltzen

hasi berriak direnak. Ekosistema aldatzen ari da, baina ez dago horretarako arrazoi edo eragile orokor bat. Espezie bakoitzaren araberakoak dira, lehen bizi ez ziren inguru batean bizitzen hastearren arrazoiak, eta hiru animalia zehazten kasuak jarri ditu adibidetzat.

Igaraba Tolosatik gertu egoteko bi motibori jarri die fokua, adibidez: «Oria ibaiko uraren kalitatea asko hobetu da, zalantzarik gabe

Lauzpabost urtean bildutako lana jaso du liburu berrian, Alberto Luengo biologoak

eta, lehen ez bezala, orain animalia horrek behar dituen elikagai asko daude inguruan. Bere bizi zikloa garatzeko aukera du, Orian duela urte batzuk ez zeuden arrainak baitaude orain. Horrez gain, gaur egun debekatuta dago igarabak ehizatzea».

Izokinari buruz ere aritu da, Tolosatik oso-oso gertu baitago: «Uste dut laster ikusi ahal izango dugula Tolosan, uraren kalitatea hobea delako, eta politikak garatu dituztelako ibaietako hainbat oztopo eraisteko. Horrek ahalbidetzen du izokina ibaiko eremu altuetaraino sartzea». Izan ere, hori ezinezkoa zen orain dela gutxira arte, ibaia «humanizatuegi» baitzegoen.

Azkenik, lephoria Tolosan berreskuratzen ari dela ere nabarmendu du, basoarekin duen loturagatik. «Azken urteotan, Gipuzkoan, askoz ere zuhaitz gehiago dago, eta lephoria basoari oso lotuta egon ohi da. Tolosa inguruan baso eta landaredia asko izaten dugu, eta lephoria zuhaitz asko dagoen eremuetara iristen ari da».

GERO ETA ISOLATUAGO

Egutegi natural batekin itxi dute Tolosako faunari ateratako argazkia, baina, zer da egutegi natural bat? «Azken finean, naturan gertatzen denari gure ikuspegitik begiratzeko gida bat besterik ez da».

Eta, sasoiak egutegia antolatu du Luengo biologoak: «Gero eta isolatuago gaude naturatik eta, eguraldia zer moduzkoa den jakiteko, mugikorrari begiratzen diogu, leihora atera beharrean. Adibide inozo samarra da beharbada, baina balio du gertatzen dena ikusteko. Tolosaldeko naturan gertatzen dena ikusi behar dugu, eta horretan lagunduko du egutegi horrek».

Liburuaren mamia osatzeko, irudiak jarri ditu Xabier Mendarterenak, eta argitalpena eskuragarri dago jada, Babel eta Elkar liburu dendetan, 22,5 euroan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona euskaldun bat behar da Tolosan. Interesatuak deitu 688 88 82 07 telefonora, 12:00etatik 14:00etara bitarte.

Alokagai

Tolosa. Etxe bat alokatzen da Tolosan, Alde Zaharrean. Bilogela, bainugela, egongela eta sukaldea, altxariekin. Interesa duenak deitu 677 00 00 05 edo 667 32 09 11ra.

KMK 2020ko logoa eta leloa zabaltzeko laguntza eskatu du ikastolak

Kilometroak festaren logoa eta leloa zabaltzeko erronka luzatu die Zubimusu ikastolak eskualdeko herritarrei

Erredakzioa

Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo Zubimusu ikastolak antolatuko duen 2020ko Kilometroen leloa *Korri, punpa, ttak* da. Lehenak, *korri-k*, aurrerantz emandako pausoei egiten die erreferentzia, pilota jaurti aurreko uneari, iraganean egindako bideari; Bigarrenak, *punpa-k*, prestaketa garaia irudikatzen du, sakearen unea da, oraina; Hirugarrena etorkizuna da, *ttak*, sakea egin, pilotari gogor eman eta aurrera egiteko garaia. Leloa eta logoa zabaltzeko asmotan, erronka proposatu die ikastolak herritarrei. Onartzen dutenek bi aukera izango dituzte parte hartzeko: Dauden tokian daudela Kilometroetako arropa edo osagarriak soinean dituztela argazkiak ateratzea; Edo bestela, *Korri, punpa, ttak* esanez bideo bat grabatzea, pilota jaurtitzeko ariko balira bezala.

Erronka onartu eta argazkiak zein bideoak egiten dituztenek sare sozialetan zabaltzeko behar dituzte, *#KMKIbiltaria* eta *#Korri-PunpaTtak* traolak erabiliz eta *@Kilometroak* aipatuz. Nahi dutenek, *komunikazioa@kilometroak.eus* helbidera ere bidali ditzakete irudiak.

Zubimusu ikastolatik zera nabarmendu dute: «Gauden tokian gaudela ere, jaurti dezagun pilota han eta hemen, batean eta bestean, Euskal Herrian zein munduko edozein txokotan».

Agortuta daude 'Errimak bi oinetan' saioetarako sarrerak

ANOETA // Haatik dantza konpainiak *Errimak bi oinetan* ikuskizuna estreinatuko du Mikela-sagasti auditorioan, bihar 22:00etan eta igandean 18:00etan. Sarrera guztiak agortuta daudela jakinarazi du Anoetako Udalak. Konpainiak datoren hilaren 24an, Tolosako Leidor aretoan eskainiko du saioa.

Bilboko manifestaziora joateko deia egin du Sarek

GALen biktima den Asun Lasa tolosarrak irakurriko du Bilboko manifestazioko mezua, Rosa Rodero ETako biktimarekin batera

Erredakzioa

Irtenbide «justua eta iraunkorra» eraikitzea, errespetua eta erreparazioa eskaintzea biktima guztiei, eta espetxeetan presoek eta senideek jasaten dituzten eskubide urraketak behin betiko amaitzea. Sarek eta Bakegileek horrela laburbildu dituzte, Bilbon eta Baionan larunbatean egingo diren manifestazioekin egin nahi diren aldarrikapenak. 15:00etan abiatuko da Baionakoa eta 17:00etan Bilbokoa. Azken manifestazio honetara joateko autobusak antolatu ditu eskualdetik Tolosaldeko Sarek.

Rosa Rodero ETaren biktimak eta GALek eraildako Joxean Lasa tolosarraren arreba Asunek jarriko diote ahotsa azken mezuari Bilboko manifestazioan. Sarek nabarmendu du emakume horiek argi dutela gorrotoak eta mendekuak kalte bakarrik egiten dutela, eta ez dutela nahi inork euren izenean hitz egitea, edo euren mina «modu alderdikoi» batean erabiltzea.

Ez dezagun historia errepikarazi izango da Baionako manifestazioaren buruan joango den pankartaren mezua eta *Orain*

presoak jarriko duen oihal handi bat eramango du Bilbokoak. Baionako eta Bilboko manifestazioak era sinbolikoan batuko dituzte, gainera.

ZERRENDAK HERRIZ HERRI

Tolosaldeko Sarek Bilboko mobilizaziora joateko autobusak antolatu ditu. Lizartzatik autobus bat aterako da eta Leaburu, Gaztelu eta Orexako herritarrak eramango ditu Bilbora. Tolosan Santa Klaratik aterako da autobusa larunbatean 15:00etan. Raku, Amaiur eta Xirimirin daude izen emateko zerrendak jarrita.

Berastegi, Elduain eta Berrobite ere aterako da beste autobus bat eta izen emateak Berastegiko Ategi tabernan, Urepele elkartearen eta Basurde elkartearen egin beharko dira. Villabonatik ere pare bat autobus ateratzeko asmoa dute eta Iratzar tabernan eman beharko da izena horretarako. Anoetaldetik aterako den autobusean apuntatzeko, Irurako Trinkele, Errekalde eta Enara eta Anoetako Itzuli eta Arkupera jo beharko da. Amaitzeko, Alegialdetik aterako den autobuserako zerrendak, Alegiako Iskiña eta Jubilatuen tabernan daude jarrita.

Irurako Haurreskolan izen emateko epea zabaltzeko dute

IRURA // Urte berriarekin batera, izen ematea zabaltzeko dute haur eskolan hasteko asmotan diren umeentzat eta urtarrilaren 7tik 13ra bitarte egin daiteke. Haur eskolara bertara gerturatuta jasoko dute informazioa interesatuek eta bertan egin ahal izango da matrikula. Hau da eskolako telefonoa: 943 69 33 11.

Ugare auzoko aparkaleku txartelak eskuragai daude

ZIZURKIL // Aurreko urteetan bezala, aparkaleku txartelaren tasa 40 eurokoa izango da. Tasa udal bulegoetan ordaindu ahal izango da, edo, bestela, Zizurkilgo Udalaren kontu-korrenteetako batean. Txartel berriak aurrekoa ordezkatu beharko du, eta ibilgailuan itsatsi beharko da urtarrilaren 31 baino lehen.



Abenduaren 20an zabaltzeko zuten maiatzetik itxita egon den zubia. R.CALVO

Legarreta zubia berriro zabaltzeko dute, polemikarekin

Oinezkoen segurtasuna bermatu eta biolentzia sexistari loturiko puntu beltza ezabatu nahi izan dute, milioi erdi euro kostatu den obrarekin

Erredakzioa Amasa-Villabona

Gipuzkoako Foru Aldundiak burutu duen lanarekin oinezkoak segurtasunez ibili ahal izango dira zubian, bi metroko zabalera duen pasabide propioa izango dutelako. Era berean, zubia emakumeentzat puntu iluna zenez, horri irtenbidea emateko argiztapena jarri diote.

Inaugurazio ekitaldiaren aurretik Amasa-Villabonako EH Bilduk gutuna kaleratu zuen, zubia zabaltzeko ondoren bi autoaldi berean pasatzea ezinezkoa izatea «ulertezina» egiten zitzaiola esanez. Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak jasotako kritikaren inguruan hitz egin zuen zubiaren inaugurazio ekitaldian: «Ezin zen bi norabideetara jarri. Hori hasieratik esan dugu. Zubiak dituen zutabeak kontuan hartuta ez zen posible gehiago zabaltzea eta Ur Konfederazioak ere ez zuen hori baimentzen».

Legarreta zubiaren inguruko azalpenak emateko, Oiarbide Amasa-Villabonako EAJko hiru zinegotzirekin bildu zen. Jokabide hori «ezegokia» iruditu zaio Beatriz Unzueta alkateari. Udal gobernuak ez zuen agerraldiaren berri izan eta hori dela eta kexa eta azalpen eskaera bat bideratu

du Bide Azpiegituretako sailera. «Pentsatzen dut kasu honetan jarraitu den moldeak, erakunde edo instituzio publiko ezberdinen arteko harremanetan egon behar lukeen leialtasun eta zintzotasuna urratu duela. Jokabide horrek helburu alderdikoiak izan ditu tartean», esan du alkateak.

Udal gobernuak ez du Gipuzkoako Foru Aldunditik erantzunik jaso, baina bai Amasa-Villabonako EAJtik. «Ekainean udal gobernu hartu zuenetik EH Bilduk ez du komunikazio politikorik ezta teknikorik eduki Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zubiaren egoera ezagutzeko». EAJri «larria» iruditzen zaio EH Bilduren jarrera, «beti bezala, gezurrak esaten jarraitzea da bere jokaera, prentsa ohar faltsuak ateraz».

Villabonako talde jeltzalearen ustez, orain arte EH Bilduk «bizkarra» eman dio arazoari, «izan ere 2011-2015 legealdian, ez zuten ezer egin egoera hau hobetzeko». EAJk esan du, haiek beti herrikidetzaren alde egingo dutela lan, Amasa-Villabonan sinesten dutelako. «EAJk emandako hitza bete du. EH Bilduk, ordea, hitz hori zapuztea besterik ez du buruan, herrian giro txarra sortuz».



Igone Saldias eta Miriam Saldias albo banatan, eta erdian, Maribi Uranga izeba eta Izaskun Uranga ama, Tolosan duten Soronea dendan. OSKIA KARRERA

«Baserria lanpostu duin batzuekin lotu nahi dugu»

MIRIAM ETA IGONE SALDIAS URANGA BASERRITAR EKINTZAILEAK

Berrobiko Soronea baserriko baratze ekologikoari eutsi nahi diote, Tolosako dendarekin batera, Saldias ahizpek; Gaztenek programa baliatuko dute proiektu berria martxan jartzeko.

Eneritz Maiz Etxarri Berrobi

Etxean bertan dutela etorkizuna eta lana konturatzea asko kosta zaiela aitortu dute Miriam eta Igone Saldias Uranga ahizpek. «Ez dakigu nolakoa izango dugun etorkizuna, espero dugu ona izatea, baina lasai sentitzen gara. Lana bilatzeaz ahaztu, eta indar guztia hemen jarriko dugu», diote. Berrobiko Soronea baserriari lotuta jarraitzeko proiektua gauzatzen ari dira. Osabak baratze ekologikoan hasitako bideari jarraitu zioten bi arrebe, eta orain ilobek hartuko diote erreleboa. **Hogeita bost urte atzera egin, eta gogoan duzue zuen osaba Iñaki Uranga noiz hasi zen ba-**

serrian baratze ekologikoan lanean?

Igone Saldias. Hiru senide dira, eta hiruretatik gehien bera aritu da baserrian. Bera oso gazte zela paper fabrika hasi zen lanean, baina biak batera egiten zituen. Lehen Soronean esne behiak zeuden, eta ganaduari begirako ikuspegia zegoen. Beti egon da baratzea, baina auto kontsumorako zen. Bere aita hil zenean, eta bere kargu geratu zenean baserria baratzerantz gerturatu hasi zen. Berak kontatzen du, amak botikak erostera bidaltzen zenean beti burezurraren ikurra ikusten zuela x batekin, eta eragin handia egiten ziola ikurrak. Hor hasi zen ikuspegia aldatzen.

Erraza izan al zuen aldaketa?

I. S. Ez zela erraza izan kontatzen du. «Beti horrela egin dugu eta zuk erakutsiko diguzu guri» edota «zuk zer pentsatzen duzu?» bezalakoak entzun behar izan zituen. *Trukoa* hartu arte uztetan zenbat arazo izan zituen ere kontatzen du. Botika naturalak bota ditzakezu, baina dosiekin ez baduzu asmatzen uzta galtzen duzu. Osinekin egiten zituena purina deitzen dion botikak, eta ez bazituen ondo hartzitu edo ontzen arazo pila bat izaten zituen. Garai hartan baratzea gaizki edukitzea, gainera, herriari begira, lotsagarria zen; bizi guztian itxuraz eta ondo eduki dutenean.

Ikasketak egin zituen?

I. S. Beti ibili da permakulturako edo biodinamikako ikastaroak egiten. Hasieran Bizkaiko EHNE bidez eta hemen Fraisoren aritu zen. Gero Tarragonara joan zen permakulturako ikastaroak egitera. Lehen urteetan asko mugitu zen. Behin jakituria hartuta, intuizioz egiten duzu lan, eguraldiari begiratu edota hezetasuna kontuan hartuz. Denbora erekin ikasten joan da.

Apustu berritzailea egin zuen.

I. S. Bai. Orain oso entzunda dugu edo oso ohituta gaude termino hauetara, baina garai hartan ez zen batere ohikoa. Baserriak orokorrean inoiz ez dira izan oso berritzaileak. «Beti horrela egin da» esanari eusten diote askok, eta kasu horretan bai, asko ausartu zen.

Umetatik tokatu zaizue baserriari lan egitea?

Miriam Saldias. Bai. Gure bizitzako parte izan da beti baserria. Agian beraiek nahi zutena baino gutxiago lagunduko genuen. Guri ere parke aldera joatea asko gustatzen zitzaigun, baina egun

garrantzitsuetan, patata jaso behar zenean edo jende asko behar zen egun horietan beti parte hartzen genuen. Egia esan gustura ibiltzen ginen, baina gure lagunak parkean zeuden eta asko tiratzen zigun parkeak.

Familiako negozioa dela esango dugu Soronea baserria?

I. S. Bai, eta ez dendaren bueltan ikusten garenek bakarrik. Atzetik egon dira izeba-osaba guztiak, amona, koinatak... oraintxe bertan 88-90 urtera gerturatu direnak, baina denak, arratsaldero lanean aritzen dira. Horiek den artean atera dute baserria aurrera. Soldatek ez dute denentzat eman; asko, borondatezko lana izan da. Familiako fideltasun horrek atera du baserria.

M. S. Garai horretako pertsonak uste dut denek beraien baserri bezala hartzen zutela. Beraien baserri lanera joaten ziren soldatarik gabe. Gaur egun, pixka bat, hori falta zaigu.

Hurrengo egunean dendara eraman beharreko produktuak prestatzen zituzten?

I. S. Bai, edota azokarako. Denda ireki zen, baina ekologikoko lehenengo zen. Hasiera ez zen erraza izan, eta produktu fresko guztia atera ahal izateko azoketara ere joaten ziren, eta hor zegoen familia guztia. Izebak eta amak lana utzi zuten; baserriari begira osaba, eta dendara begira ama eta izeba hasi ziren lanean.

Beste apustu bat, denda. Garrantzitsua izango da bitartekari gabe zuzeneko salmenta egitea.

I. S. Oso zaila da baserri baka- rrik hainbeste soldata ateratzea. Apustu bat izan zen gure produktuekin batera gainontzekoa jarriz familia horretatik bizitzea.

Bezeroarekin harremana izatea alde ona da?

M. S. Bai. Duela 16 urte ireki zenetik bezero askok jarraitzen dute oraindik etortzen. Harreman handia lortzen duzu, bada- kite nondik datorren produktua, gertukoa da, kalitatezkoa eta asko baloratzen dute.

Ikasketa aldetik, biok, beste bide bat hartu zenuten.

M. S. Nik arkitektura tekniko- a ikasi dut.

I. S. Nik zuzenbidea, baina berak arkitektura ikasita, bere puntu ahula bioeraikuntza izan du, eta hortik hasi zen. Nik ere, garai hartan baserriarekin jarraitzean batere pentsatu gabe, zuzenbidea bukatu eta ingurugiro zuzenbidea ikasi nuen; gero agro- ekologiarako jo nuen eta elikadura subiranotasunera. Eta bukatzean konturatu nintzen etxerako bidea egin nuela.

Presente izan duzue Soronea baserria, beraz.

M. S. Bai, bizitza guztian. Nik uste dut familia osoa oso harro gaudela daukagunarekin. Asko lotzen gaitu.

I. S. Beti egon gara lotuta, onerako eta txarrerako. Indar handia du.

Bizitzak bueltak ematen ditu, eta, orain, familiako negozioari helduko diozue.

I. S. Bazirudien hasierako urteetan bestelako lanak bilatzen ez genuela zorterik. Baina, egia esanda, ez gara batere saiatu gure ikasketekin lotutako lana bilatzen. Bazegoen zerbait ez nuela horretan lan egin nahi esaten zidana. Hainbeste urte ikasten pasa, eta hainbeste inbertsio egin dute gure gurasoek, oso gogorra zen hori esatea. Zaila da onartzea eta guk ere uste genuen porrot egin genuela.

M. S. Horrela izan da. Nik ere krisiari botatzen nion errua, ez zegoela lanik... Inguruko guztiek «ze pena horrelako ikasketak izanda» bezalakoak esaten zituzte. Baina, barruan banuen zerbait hori ez zela nire bidea esaten zidana. Lan ezberdin pila bat egin ditut, beti zerbait hobeagoaren bila. Etxetik kanpora zerbait aurkituko nuen esperantzarekin. Baina, ez nekien zer zen. Eta ez nuen sekula aurkitzen.

I. S. Nik urte asko daramatzat dendan lanean, eta betiko galdera izaten zen: «Dauzkazun ikasketekin oraindik amaren dendan al zaude?» Halako amorrazioa sortzen zidan horrek barruan, eta agian, dendan, gus-

turago nagoela pentsatzen nuen. Biok bateratsu egin genuen klik, eta esan genuen kanpoan lana bilatzeari utzi eta honetatik zerbait polita sortzen hasiko ginela. Oso ondo egin duten bide bat hasita dugu, baina egia da pixka bat pertsonalizatu behar duzula zure sentitzeko, eta hori egin dugu.

Baserria desagertzeko beldurra izan duzue.

I. S. Bai. Nik uste dut gure bertigorik handiena hori izan dela. Asko maite dugu toki hori. Osabari indarra falta zaio, eta familiakoak izan edo ez, baina behar du babes bat eta jarraipen bat dagoela ikustea. Karga hori gainetik kentzeko beharra zuen.

M. S. Guk dendari ez diogu zentzurik bilatzen baserria ez bada. Dendan saltzen dugun gehiena baserriko produktuak dira, garaikoak, beste gauza askorekin batera. Eta guk oso pozik saltzen dugu gure produktua. Eta hori galduz gero, dendak ere bere filosofiaren zati handi bat galduko luke. Lan bat egiteko beharra sentitu genuen maite ditugun bi gauzek jarraitu ahal izateko.

Eta noiz izan zen klik hori?

M. S. Orain urte bat sartu nintzen dendan, eta pixka bat lehenago hasi ginen. Osabaren esanak entzuten hasita geunden ea nork jarraituko duen baserrian, dagoeneko urte batzuk zeuzkalla... Eta gu bioz aparte ez dago beste inor.

Gaztenek programara jo duzue?

I. S. Nekazaritzako bulegora joan ginen, eta ordurako osaba infor-

mazio bila joana zen. Iazko deialdirako berandu genbiltzan, eta hobe genuela proiektua lasai eta denborarekin egitea ikusi genuen. Abenduan ireki zen beste deialdia, eta urte guztia daramagu lantzen eta buruari buelta asko ematen. Zer mantendu, zer handitu, zer aldatu... Dendan eskaria handiagoa da, eskaintza baino. Guretzat hori pena bat da. Gehiago egin ahalko genuke, baina azkenen urteetan lanak gairatzen gaitu. Ekologiaren barruan ere oso ezberdina da etxekoa izatea edo intentsiboagoa edo monolaborantza batetik datorrena izatea. Hori ekidin nahi dugu, eta ahal badugu garaikoa den guztia gure sortu. Garaitik kanpo jendeak tomate ekologikoa nahi badu, beste ate batzuk joko ditugu eta tomate ekologikoa ekarriko dugu. Baina garaikoaren kasuan ea eskaera guztia irerantzutera iristen garen.



Duela 25 urte hasi zen Iñaki Uranga baratze ekologikoarekin. SORONEA

Zein izango litzateke zuen proiektua?

I. S. Ekoizpena gehitzea batetik, eta ekoizpen horretatik zati bat transformatzea izango litzateke. Produktu freskoek muga batzuk dituzte, eta banatzaile handiei saltzeak ez du konpentsatzen. Beraz, sukalde horren sorkuntzarekin ere lanean ari gara elikagaiak transformatzeko gune bat sortzeko. Marka landu, eta gertuko produktuen aukera handitu nahiko genuke.

Dendari eutsi egingo diozue?

M. S. Dendan ere lan handia egin nahi dugu. Azken produktuak izateko, gertuko produktuak ere ahalik eta gehien eskaini nahi ditugu, eta webgune bat ere egin nahi dugu online gure eskaintza ahalik eta jende gehiagorengana iristeko.

Eta guztia martxan jartzeko zein epe dituzue buruan?

M. S. Proiektua aurkezten dugu-

netik Gaztenek programaren barruan bost urte ditugu martxan jartzeko. Garbi dugu egin nahi ditugun gauza guztiak lehen urtean ezin ditugula egin. Gu ere aldaketa guztietara egokitzen joateko bost urtetan banatu ditugu asmoak. Garbi dugu bizi ere egin nahi dugula. Gu beste belaunaldi batekoak gara, eta horri garrantzia handia ematen diogu. Baserria lanpostu duin batzuekin lotu nahi dugu, eta era berean morrontza lan bat eskatzen ez duen lana izatea nahi dugu. Garaian garaian berrikuntzarekin lotutako tokia, eta gazteak eta ikasketadunak, baina borondatez toki hori aukeratzeko duten pertsonak elkartuko dituen gune bat sortu nahi dugu. Ez dugu nahi azken aukera moduan ikustea baserrian lan egitearena.

Zer ematen dizue lan honek?

I. S. Onerako eta txarrerako, baina ez dugu ikusten fitxatu behar dugun lan baten moduan. Urte zaila izan dugu proiektuarekin bueltaka, baina behin martxa hartutakoan egunerokotasun ona daukagu.

M. S. Dendan nagoenean nire etxean sentitzen naiz, eta oso lan gutxitan daukazula hori iruditzen zait. Harro gaude egin dutenaz, eta honi jarraipena ematea eta gure ekarpena egitea, bizitzako opari handi bat dugula iruditzen zait.

I. S. Agian desagertu behar du gure baserriak, baina ez dadila izan saiatu ez garelako. Hurrengo hamarkadako arazo potoloetako bat baserriaren desagertzearen ondorioa izango da.

«Basoa eta sasia herriraino iristen ari dira»

Baratzegintza osasuntsu dagoela sentitzen duzue?

I. S. Ez. Oso prezio baxuak dira, eta gure baserria dendak ordaindu du, edo soldatak dendatik atera dira. Ez da buruaskia izan baserria eta zerbait iraungarria izan behar badu, bere kisa ordainduko den toki bat izan behar du. Ekologiaren barruan oso espazio handiak dituzten baratzeak daude, eta Tolosaldean egon daitezkeen formatu txikiko baratzetatik bizitza ez da batere erraza; salmenta puntuak ez badituzu landuta edo lan pila bat ez baduzu egiten atzetik. Baserri bategi jakin behar du saltzen, marketina egiten, publizitatea ematen, baratzea ondo kudeatzen, arlo ekonomiko-administratiboa... Paperetan bakarrik buruhauste pila bat du. Baserri-

tar batek enpresa batek beste jakin behar du bere produktua aurrera ateratzeko. Aldatzen dena da, hemen guztia pertsona batek egin behar duela.

Baloratzen da baserriaren lana?

M. S. Nik uste dut ezetz. Prezio batzuk dagoeneko jarrita daude, eta buruan sartu zaigu letxuga edo uraza batek euro bat baino gehiago balio badu, garestia dela, adibidez. Ez da begiratzen kalitatez nolako den, handiago den edo nondik datorren. Garestia da, beraz, ez dut erosten. Barazkiekin oso gogorak gara prezio aldetik, eta ez dugu baloratzen bertakoa izatea.

Orokorrean bazterrean dagoela uste duzue lehen sektorea?

I. S. Orain aldatzen ari dela esango nuke gazteen aldetik. Orain

arte, bai. Baserriak berak ere konplexu asko sentitu du.

M. S. Guk ere sentitu dugu horrekin ez genuela jarraitu behar, edo ez dela jarraitzeko bidea. Guk ere gure familiako proiektua baztertu dugu. Azken urte haueetan hori egon da gizartean.

I. S. Ezjakinak bezala. Nik beti esaten dut, guk ikasketa hauek edukitzean bukatu dugu, baserri bultzatzean harro esateko titulua baditugula, nahiz eta, baserriak izan. Ez da lehen moduan baserrian bukatzen zela beste biderik ez zenuelako. Gaur egun hirietatik dator aldaketa. Baserriekin lotura duten herrietako askok ez dute segitu nahi eta hiriko jende asko, konturatu denean fabriketan baldintzak edo zoriontasuna okerragoak direla, baserria nahi dute. Eta ara-

zoa hor dago. Lurrak dituenak eta baserria dohain duenak ez du jarraitu nahi, eta ez duenak ezer jarraituko luke, baina nola erosi lurrak eta baserri bat? Orainxe bertan egoera hau da.

Gaztenek laguntza izango duzue. Instituzioek behar beste egiten dute sektoreagatik?

I. S. Ez. Batere ez. Diru asko eskaini zaie industriari eta erakuntzari. Nekazaritzarako egokienak izango liratekeen lurrak urbanizatuta daude. Ezinezkoa da nekazaritza potentzia bat edukitzea aldatuak diren lurretan. Gaztenek programak laguntzen du, baina sinbolikoa da Gaztenek eman dezakeen laguntza, edo lehen sektoreari ematen zaion dirua, beste sektoreek eramatean dutenarekin konparatzen badugu.

M. S. Gaztenek 40 urtetik beherakoei zuzendutako laguntza da, eta sartzeko laguntzen du. Gero ea zenbat laguntzen diguten.

Gizarteari esan egin behar zaio ingurunea baserriarekin mantentzen dutela.

M. S. Mendia edo inguruak zaintzarekin harremana erabat hautsita daukagu. Gure lan ordutan gure inguru zaintzea tokatzen zaigu, eta pena bat da baserriak bakarrik arduratzea horretaz, denok disfrutatzen dugunean mendi, baso, zelai eta bideez. Kontzientzia hori berriz itzuli beharko litzateke, eta guztion artean egin, errazago da eta. Baserriak gero eta helduagoak dira, gero eta gutxiago bizi dira baserrietan, eta osabak esaten duen moduan basoa eta sasia herriraino iristen ari dira.

Alegiako kiroldegiko bazkide egiteko edo jarraitzeko epea irekita

Urtarrilean izango dute alegiarrek Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxeko bazkide txartela egin edo berritzeko aukera; mendi asanbladak urteko egutegiak salgai jarri ditu

Erredakzioa Alegia

Urtarrilean izango dute aukera Alegiako Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxeko bazkide direnek txartelak berritzeko. Berritze kanpainan, lehenik, udalak hainbat baldintza betetzen direla ziurtatuko du. Hasteko, bazkide guztien kasuan, Alegian errol-datuta daudela ziurtatuko du. Horrekin batera, langabezian dauden bazkideek, Lanbideko ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko dute. Eta ikasleen kasuan, dagokien ikastetxean eskatu beharko dute zentro horretan ikasten ari direla baieztatzen duen ziurtagiria.

Adin txikikoen kasuan, berriz, bere NANaren fotokopia eta kontu korronteko titularraren NANaren fotokopia aurkeztu beharko dituzte. 65 urtetik gorakoek ere NANaren fotokopia aurkeztu beharko dute, hobariaz baliatu ahal izateko.

Kontu korronte zenbakia emanda duten bazkideen kasuan, lehenengo kuota urtarrilaren 15aren eta 18aren artean kargatuko zaie, helbideratuta duten kontu zenbakian. Bazkideetza urte osorako izango da, eta prezio publikoen ordenantza arautzailean jasotako tarifa aplikatuko dela ohartarazi dute. Bigarren kuota, urtean zehar kobratuko



Alegiako Mendi Asanbladak egutegiak berrikuntzekin atera ditu. ATARIA

da. Kuota helbideratu gabe eta bazkide izaten jarraitu nahi dutenen kasuan, 2020ko urtarrilaren 20a baino lehen Kutxaban-keko 2095 5020 03 1061513718 kontu zenbakian egin behar dute dagokien kuotaren ordainketa, eta ostean, ziurtagiria kultur etxean aurkeztu beharko dute.

2019an bazkide izan eta baja eman nahi dutenek, bihar, hilak 10a, izango dute horretarako azken eguna. Kultur etxera joan eta hori jakinarazi beharko dute, txartela entregatuz.

Bazkide egin nahi dutenek edo zalantzaren bat argitu nahi dutenek kultur etxera jo dezakete edo 943 65 46 98 telefono zenbakira deitu. Kultur etxearen ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta

15:00etatik 21:00etara da, astelehenetik ostiralera.

ALEGIAKO MENDI ASANBLADA

Alegiako mendi taldeak 2020 urteari begira irteerak antolatzen jarraitzeko asmoa du. Ohiko moduan urteroko egutegia salgai jarri dute euro baten truke, baina aldaketekin atera dute.

Euro horren truke mendi taldeko bazkideetza lortzen da, eta bazkide zenbakia egutegian bertan agertzen da. Helduak nahiz umeak izan daitezke bazkide, ez dago adin mugarik. Denboraldi amaieran, azken irteera egunean, hainbat opariren zozketa egingo dute bazkideen artean. Erosi nahi duenak Eider, Ainara edo Olatzekin jarri beharko du harremanetan.

Gaur, Txintxarri Abesbatza kultur elkartearen batzar nagusia

Elkarteko kide guztiei dei egin diete 21:00etan hasiko den batzarrera joateko; 60. urteurrena izango da batzarreko ardatz nagusia

Nerea Pikabea Alegia

Alegiako Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak urteko batzar nagusia egingo du, gaur, hilak 9, bi abesbatzek urteari begira dituzten proiektuei buruz hitz egingo. Batzarra kultur etxean izango da 21:00etan. Txintxarri abesbatzaren 60. urteurrena izango da batzarraren ardatz nagusia.

Amaitu berri den urtearen errepaso eta balorazioa egingo dute lehendabizi. Bi abesbatzek -Txintxarri Txikik eta Txintxarri- egin dituzten ekimenak eta diru kontuak aztertu eta onartuko dira. Eta bi koruek urte honetarako dituzten aurreikuspenak ere aurkeztuko dira batzar nagusian.

Pasatu berri den Errege Egunean 60 urte bete zituen Txintxarri Abesbatzak. Hori dela eta, hainbat ekitaldi egingo dituzte 60. urteurrena ospatzeko.

Gainera, Elkarteko Zuzendaritza Batzordearen zati bat ere berri egingo da batzar nagusi horretan.

Elkarteko bazkide guztiei batzar horretara joateko dei egiten zaie, eta bide batez, elkarteko bazkide egin nahi izanez gero, koruko kideren batekin harremanetan jarri edota kultur etxeko postontzian eskaera uztea besterik ez dela egin behar adierazi dute.

Haurtxokoaren gaineko bilera egingo dute hilaren 24an

AMEZKETA // Amezketako Udalak Haurtxokoa jarri berri du martxan herriko 0-6 urte bitarteko haurrek eta euren gurasoek negua epelean igarotzeko gunea izan dezaten. Azaro amaieran zabaldu zituen ateak txokoak, eta gurasoek autogestionatutako gunea izango da. Bilera deitu diete erabiltzaile izango diren gurasoei, eta bilera hilaren 24an, 17:00etan, Haurtxokoan bertan egingo dute.

'Aralar, mundua leku den lurra', Europako Natura 2000 sarietan

TOLOSALDEA // *Aralar, mundua leku den lurra* filma Europako Natura 2000 sarietarako aukeratu dituzten 80 proiektuen barruan dago. ON produkzioak eta Landarlan Ingurumen Elkarteak eginiko lana da eskualdeko hainbat udalen laguntzarekin. Komunikazio atalean beste 16 proiektuekin batera lehiatuko da. Sariak otsailean emango dituzte ezagutzera.

Irakurle taldea sortzeko lehen bilera egingo dute, Alegian

ALEGIA // Alegiako Kultura batzordeak bultzatuta, irakurle talde bat sortzeko bilera irekia egingo da hilaren 15ean, 18:00etan, kultur etxean. Irakurleen elkargune bat sortu nahi dute irakurzaletasuna duten herritarrek biltzeko eta horrelako taldeetan egiten den moduan, liburu bat aukeratu, beratu irakurri eta ondoren liburu horren inguruko saioak egingo. Egitasmoan interesa duten herritar guztiei zuzenduta dago bilera.

atarian jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

«Momentukoari heldu behar zaio, eta gauzak ahalik eta ondoen egin»

ERIK JAKA PILOTARIA

Pozik hartu zuen pilotari lizartzarrak Binakako Txapelketan parte hartzeko aukeratua izatea, eta oraindik ere gusturago dago ikusita sailkapeneko lehen postuan doazela.

Imanol Garcia Landa Lizartza

Albiste izan zen Binakako Txapelketaren hasieran, lehen aldiz titular izan baitzen, eta egun ere albiste da, Jose Jabier Zabaletarekin batera sailkapeneko lehen postuan baitago, ligaxkako lehen itzulia bukatuta. Halere, Erik Jakak (Lizartza, 1994) hankak lurrean ditu, eta partidaz partida joan nahi du.

Hasieratik hasiko gara. Binakako Txapelketan lehen aldiz titular moduan ariko zinela jakitean, zer sentitu zenuen?


Lehenik eta behin sekulako poza sentitu nuen. Azken bi-hiru urtetan hor ibili naiz, txapelketaren ateetan, sartu edo ez sartu. Azken urteotako lan onak bere fruituak eman ditu, txapelketa batean jokatzeko aukerarekin. Hasieran pozik banengoen txapelketa jokatzeko aukera izanik, orain gehiago, txapelketa nola doan ikusita.

Bikotea Jose Jabier Zabaleta izango zela jakitean, are eta gusturago?

Txapelketa baten barruan zaudenean, nik uste dut ez diozula lehenik eta behin horri begiratzeko. Garrantzitsuena txapelketan bertan egotea da. Gero, poz handia hartu nuen Jose Jabierrekin jokatzeko nuela jakitean. Aurreko urteetan egin ditudan ordezkapenetan berarekin tokatu zait, eta uste dut lan ona egin genuela. Momentuz ikusten da bakoitzaren jokoa ondo egokitzen dela bestearekin, eta ea horrela jarraitzen dugun.

Lehenengo parte hartzean, espero zenuen sailkapeneko lehen postuan egotea lehen itzulia bukatu eta gero?

Egia esan ez nuen luzaroko aurreikuspen handiegirik egin. Jose Jabierrek horrelako txapelketetan nik baino eskarmentu gehiago du, eta berak esan zidan ez duela balio lehenengo jardue-



JOSU ARTUTXA

naldian zaudela zazpigarrengan non egongo garen pentsatzen hastea, eta orain ere ez du balio ligaxka bukatzerakoan non egongo garen pentsatzen egoteak. Orain arte bezala segitu behar dugu, partidaz partida pentsatuz, ahal den puntu gehiena pilatuz, baina astero zentratuta asteburu horretako partidari. Oraingo oso kontentu gaude, zazpi partidetatik sei irabazita. Ezin hobeto goaz, lider goaz, baina asteburu honetako puntuan pentsatzen ari gara eta horretarako entrenatzen ari gara.

Nola ikusten ari zara Zabaleta? Gaur egun dagoen atzelari osoena da?

Ezin da soilik momentuko postua kontuan hartu. Ikusi behar du txapelketa bukatzean non amaitzen dugun eta orduan zer esaten den. Azken urteotan, Rezusta eta Albisurekin batera atzelari onena izaten ari da. Dударik ez dago Jose Jabier mo-

mentu oso onean dagoela, baina ez gara ezer deskubritzen ari. Aurreko txapelketan sekulako lana egin zuen, eta orain bi urte txapeldun izan zen. Denborarekin gauza horiek ahaztu egiten dira, eta momentuko bakarrak baloratzen aritzen gara denak. Nik uste dut Jose Jabier egiten ari den lana aipagarria dela, baina aurreko urteetan eta hilabeteetan egin duen lana ere berdindin aipatzekoa da.

Zure burua nola ikusten duzu?

Betiko dudak izaten dira txapelketa berri hauetan, zure maila ahalik eta hoberen eman nahi baituzu. Orokorrean gusturago egiten ari naizen lanarekin. Badakit atzean laguntza handia dudala: Jose Jabierrek aukera asko sortzen dizkit, eta azkenean, nire dohainak dituen pilotari batek hori behar du eta hori eskertzen du. Niri errematatzea gustatzen zait gehien, eta aukerak izaten ari naiz.

Eta nola ikusten ari zara orokorrean txapelketa bera? Ezustekorik izaten ari da?

Txapelketa oraingoz oso irekia ikusten da. Gainera, aurtengo sistemarekin oraindik eta irekiago geratzen da. Ezustekoak ere izaten ari dira. Aimar eta Urruti, eta Resuzta eta Irribarria hasieran faboritoxeago jotzen nituen orain ikusten ari dena baino, baina oraindik mundu bat geratzen da, itzuli oso bat geratzen da, eta oraindik ez dakigu inork non bukatuko dugun. Bestalde, Altuna eta Ladisekin, eta Artola eta Imazekin jendeak ez zuen hainbeste kontatzen, baina garbi ikusten da horrelako mailako txapelketan bikote guztiek asko jokatzeko dutela, eta edozeinek daukala bolada on bat hartzea eta txar bat pasatzea.

Ligaxka lehen bi postuetan bukatuko duzuela uste duzu?

Hori da nahi duguna, baina partidaz partida zentratzea da garrantzitsuena. Ahalik eta azkarraren ahalik eta puntu gehien lortu, eta partida onak egiten segitzen badugu, puntuak lehenago edo beranduago iritsiko dira. Helburua, orain gauden egoeran, lehen edo bigarren geratzea izan behar du.

Irudikatu duzu zure burua txapela jantzita?

Ez da egokia eta ez da ona nire buruarentzako horrelako gauzak irudikatzea. Txapelketa luzea geratzen da oraindik, eta finalerdietan sartuz gero beste hiru partida jokatu behar dira finalera iristeko... Nik uste dut akatsa izango litzatekeela hemendik hiru hilabetera zer gertatu daitekeen eta zer ez pentsatzen hastea. Momentukoari heldu beharra dago, eta gauzak ahalik eta ondoen egin: eskuak zaindu, gorputza zaindu, eta puntuak pilatzen joan.

Lauburu KE Ibarra, Gipuzkoako Kopako irabazle

Idiazabali irabazi zion mutiletan Lauburu; nesketan, Laskorain finalerdietara iritsi da

Erredakzioa

Astigarragako kiroldegian jokatu ziren areto futboleko senior mailako Gipuzkoako Kopako finalak, asteburuan. Mutilen mailan,

Lauburu KE Ibarra 10-2 irabazi zion Idiazabali.

Lehen zatiko zortzigarren minutuan estu zihoazen kontuak, eta markagailuak banako berdinketa erakusten zuen. Hortik aurrera, ordea, Lauburu erabat nagusitu zitzaion Goierriko taldeari, eta atsedenaldirako hiru goleko errenta zuten ibartarrek: 4-1. Bigarren zatian, gol gosez kantxaratu ziren moretxoak, eta

horrela, dozena erdi bat gehiago sartu zizkieten goierritarrei. Hauek, 2-5 gerturatu baziren ere, ez zen nahikoa izan ibartarren jokoa aldatu, eta ezustekoan pentsatzen jartzeko. Iñigo izan zen partidako jokalaria onena, lau gol sartu baitzituen. Oihane bi baloi sareratu zituen, eta Aldalurrek, Saldisek, Juaristik eta Zumetak, berriz, bana.

Nesken mailan, eskualdeko



Lauburu KE Ibarra taldea, Gipuzkoako Koparekin. ATARIA

talde bat iritsi zen finalerdietara: Laskorain. Hauek, ordea, ezin izan zuten ezer egin, gerora txa-

peldun suertatu zen Ordizia talde indartsuaren aurka. Tolosarek 6-2 galdu zuten.



OSTEGUNA, 2020KO URTARRILAK 9
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 09

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Urtarrilaren 30eko grebaren nondik norakoak aurkeztuko ditu Karta Sozialak, Txotxo aretoan, 19:00etan.

Tolosa. Ray & Liz, zine forum saio, Leidorren, 19:15 eta 21:45ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, solasaldia helduekin, letren errepublika eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musikala.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioren onena.
20:00. Mestibull. DJ Bullekin.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Moby Dick bakarriketa musikatua
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe
22:30. Aniztasunean biziz
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoak. L. Lejeune Maset. Euskal Herria, 24. 943 67 3274.
TOLOSA. Gauekoak. L. Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Goizean hego-mendealdeko haizearekin giro lasaia eta nahiko epela izango dugu; arratsaldean, zakartu egingo da, euri zaparradak izango ditugu, eta tenperaturak behera egingo du.

Bihar. Egun osoan zehar hodeiak nagusituko dira eta euri pixka bat utziko dute. Goizean egingo du euri gehien. Egun amaitezarako atertu egingo du.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Realeko jokalarien garaipen historikoa aintzat hartuta, erretilua egin dute ATARIAk eta HITZAK; ATARIAren egoitzan eskuratu dezakete atarikideek 8 euroan.

Garaipen historikoa oroitzeko

Erredakzioa

Realeko neskek Kopa irabazi zuten pasa den urtean, eta garaipen historikoa oroitzeko erretilua egin dute ATARIAk eta HITZAK. Dagoeneko salgai daude TOLOSALDEKO ATARIAren bulegoan bertan.

Emakumeen taldearekin egin den lehen erretilua da, 2019ko maiatzaren 11n Granadan gertaturiko balentria ez ahazteko. Taldea sortu zenetik garaipen horretara heltzeko bidea luzea izan da. Izan ere, jokalaria askok jarri dute euren alea familia txuri-uridin handiaren eraikuntzan, eta Granadan lortutakoa haiei esker ere izan zen. Esfortzurik gabe, ez dagoela garaipenik, baina posible dela erakutsi dute.



Nerea Eizagirre tolosarra, erretilua eskuartean duela. ATARIA

1980-1981 denboraldiko Liga izan zen talde txuri-uridin irabazi zuen lehen titulu esanguratsua, Gijonen Jesus Maria Zamorak egindako gol mitiko hari esker. Lorpen hura ez ahazteko, erretilu oroigarri bat egin zen. Urteak pasa dira geroztik, eta hala ere, hainbat tabernatako apaletan ikus daiteke, eta realzale askok ere etxean gordeta izango dute.

Orain, baina, emakumeen unea dela erakutsi dute jokalariek, lortutako txapelkun titulua eskuetan dutela.

Realeko neskekin eginiko erretilua lortzeko Tolosako San Esteban auzoko 20. zenbakian ATARIAk duen egoitzara jo behar da. 8 euroan eskuratu ahal dute Atarikideek, eta gainerakoentzat 12 euroan dago eskuragai.

Ataria bertso jaialdia 2020

AGORTIUTA

Urtarrilak 18, larunbata arratsaldeko 18:00etan. Tolosako Leidor antzokian

Amara Agirre Gai jartzailea
 Maialen Lujanbio
 Amets Arzallus
 Oihartzabalena
 Vi...
 ...asa okindegia

LEGORRETAKO FERRI ANTZOKIA 2019 NEGUA

URTARRILAK 11 OSTIRALA	OLATZ SALVADOR + EME	
OTSAILAK 3 IGANDEA	"BAKEAN DAGOENA, BAKEAN UTZI" BAKARRIKETA	
OTSAILAK 24 IGANDEA	NOGEN + SERRULLA	
MARTXOAK 16 LARUNBATA	CRAB APPLES (BARTZELONA) + NATURAL PROJECT	
MARTXOAK 24 IGANDEA	"DANTZA" FILMA ETA SORTZAILEEKIN SOLASALDIA	
APIRILAK 5 OSTIRALA	"LA FIESTA DE LA MADONNA" ONCE taldearen antzezlan	
APIRILAK 13 LARUNBATA	IRRINTZI ALAI TALDEAREN DANTZA EMANALDIAK	
ASTERO	OSTEGUNETAKO ZINEA	

Laguntzaileak: www.legorreta.eus
 Antolatzailea: SATTO
 Legorretako Herri Antzokia @Legorretantzoki